

ANIMALIAK EZAGUTZEN ITSAS ANIMALIAK




ITSAS ZALDIA

ITSAS IZARRA





IZURDEA

MARMOKA



IZOKINA



ANIMALIAK EZAGUTZEN

ITSAS ZALDIA



KAIXO, ITSAS ZALDIA NAIZ.

Arrain txikia naiz eta arraina ba naiz ere, nire itxura nahiko berezia da. Zein beste animaliaren antza daukat? Bai, noski, zaldi batena. Horregatik gizakiek izen hori eman zidaten: itsas zaldia. Mutur luzea dut eta bi begi txiki. Igeri egiteko bizkarrean ditudan hegats txiki batzuk erabiltzen ditut. Isatsa luzea dut, espiralean kiribiltzen dena. Isatsari esker, ur azpian dauden landareei heldu naiteke.

TAMAINA ETA UGALKETA

Gure tamaina aldatu egiten da espeziearen arabera. Aurkitu den itsas zaldi txikiena 14 milimetroko luzera du, hau da, ilar bat baino txikiagoa. Aurkitu den handiena berriz 29 zentimetroko luzera du, hau da meloi bat bezalakoa. Gutako bakoitzak milaka kume txikiak izan ditzake bizitzan zehar, baina horietako gutxi batzuk heltzen dira helduak izatera. Arra da arrautzak zaintzen dituen poltsatxo batean, itsas zaldi kumeak bihurtu arte.



GURE INGURUNEA

Munduko ur epel eta bero gehienetan bizi gara. Eta ugariak bagara ere, hainbat tokitan arriskuan gaude, gure ingurunea egoera txarrean baitago.

Gutako batzuk azal-harizpiak garatzeko gai gara edo kolorea aldatzeko ere, inguruneke algen artean nahasteko. Hori da gure kamuflaje-estrategia.


Igeri egitera noa orain, agur.



AZKEN GALDERAK

Badira beste itsas animaliak ugaztunen izenak dituztenak bere baitan, horietakoren bat ezagutzen duzu? Ezagutzen duzu itsas zaldi txikiena bezain txikia den animaliarik?

Hurrengora arte, agur.



ANIMALIAK EZAGUTZEN

ITSAS IZARRA




KAIXO, ITSAS IZARRA NAIZ.

Itsas animalia naiz. Bost beso ditut. Baina baditut lagun batzuk beso gehiago dituztenak. Batzuek hogei beso baino gehiago dituzte, beste batzuek berrogei beso ere! Aho handi-handia daukat gorputzaren erdian. Nire besoak bentosak dituzte. Horrela janariari eutsi diezaioket, baita ur azpian dauden harriei heldu ere. Ez dut sudurrik eta sinestezina bada ere, itsaso azpian usaindu dezaket.

ITXURA ETA BIZI-ITXAROPENA

Itsas izar asko kolore distiratsukoak gara: laranja, gorriak, arrosak edo horiak. Beste batzuk berriz, kolore itzalietakoak: marroiak edo grisak, adibidez. Normalean, hamar urte inguru bizi izaten gara. Baina gutako batzuk hogeita hamar urte arte bizi gaitezke.



BIZI-EREMUA ETA ARNASKETA

Munduko itsaso guztietan aurkituko gaituzu. Baina, ezin naiz ur gezan bizi. Horrek esan nahi du ezin naizela ibaietan edo lakuetan bizi, bakarrik itsasoetan!

Arnasa hartzeko itsasoan egon behar dut. Itsasotik ateratzen banauzu, ezin dut arnasarik hartu. Beraz, mesedez, itsasoan ikusten banauzu, ez nazazu hartu nirekin jolasteko.

AZKEN GALDERAK

Inoz ikusi al duzu itsas izarrik?
Non?

Hurrengora arte, agur.



ANIMALIAK EZAGUTZEN

IZURDEA




KAIXO, IZURDEA NAIZ.

Itsasoan bizi naiz eta hala ere, ez naiz arraina, ugaztuna baizik. Hau da, ez nintzen arrautza batetik jaio. Amaren sabelean hazi nintzen jaio aurretik.

Nire familia oso handia da. Ni itsasoan bizi naiz, baina baditut senide asko ibaitan bizi direnak. Horrela mundu osoan zehar aurki gaitzakezu. Baina gutako gehienek ur epelak eta ingurune tropikalak nahiago ditugu, nahiz eta badiren batzuk ur hotzetan bizi direnak.

NIRE ITXURA ETA OHITURAK

Arrainak eta txipiroiak jaten ditut. Horregatik hortz nahiko handiak eta zorrotzak ditut. Arrainak arrapatzeko abiadura azkarra hartu dezaket. Nire gorputza ere uran igeri egiteko egokitua dago. Nire azala leuna eta irristakorra da. Arnas egiteko zulo borobil bat dut buruaren goiko aldean.



ANIMALIAK AURKITZEKO GAITASUNA


Itsaso azpian beste animalia aurkitzeko txistuak eta karraskak erabiltzen ditut. Soinua itsasotik zabaldu egiten da eta, horrela, animalia baten kontra jotzerakoan bere oihartzuna nire belarrietara ailegatzen da. Hala, nire familia eta lagunak non dauden jakin dezaket, baita arrapatu nahi ditudan arrainak ere.

Beno, arrantzara noa orain, gose naiz eta. Agur.

AZKEN GALDERAK

Ikusi duzu inoz izurderik itsasoan?
Badakizu zein beste animaliek dute zulo bat buruan arnas hartzeko?

Hurrengora arte, agur.



ANIMALIAK EZAGUTZEN

MARMOKA



KAIXO, MARMOKA NAIZ.

Itsas animalia naiz. Kanpai itxurako gorputz bat daukat eta handik garro luze eta mugikorrek ateratzen zaizkit. Nire gorputza batez ere urez osatuta dago, horregatik naiz gelatina bezain biguina. Tximeleta bezala, eraldaketa zoragarria izan nuen mamoka bihurtu aurretik. Hasieran arrautza txiki bat baino ez nintzen eta oskolatik atera ondoren larba bihurtu nintzen. Azkenik marmoka eder bat bilakatu nintzen.

GURE BIZI-EREMUA

Marmoka gehienak itsasoan bizi gara, baina espezie gutxi batzuk ur gezatan bizi dira. Ur hotzetan zein beroetan bizi gara, baina ez Antartikan, gure gorputza izoztu egingo litzatekeelako. Ni gaineko uretan bizi naiz, kostaldetik hurbil. Baina badituzte ahaideak oso sakon bizi direnak, argia ozta-ozta iristen den ur ilunetan. Marmoka batzuek distira egiten dute itsaso azpian. Zoragarria ezta?



GAITASUNAK ETA ELIKADURA

Urpean mugitzeko gorputzean dudak hutsune txiki bat urez betetzen dut. Eta ur hori azkar-azkar askatzerakoan aurrera egiten dut. Planktona, arrainen arrautzak eta batzuetan arrain txikiak jaten ditut. Marmokak pozoitsuak gara. Hau da, gizakiek ukitzen gaituztenean, berehala gorritzen zaie azala eta azkura ematen die. Batzuk azkura pixka bat baino ez dugu ematen, baina beste batzuk oso arriskutsuak dira eta min handia egin dezakete. Beraz, hondartzan zaudenean, marmoka bat ikusterakon, adi ibili eta inoz ere ez ikutu!

Beno ba, banoa, agur!

AZKEN GALDERAK


Bazenekien marmoka batzuek distira egiten dutela?
Eta, marmokaren batek ziztatu al zaitu inoiz?

Hurrengora arte, agur.



ANIMALIAK EZAGUTZEN

IZOKINA



KAIXO, IZKOINA NAIZ


Arraina naiz eta Norvegiako ibai batean jaio nintzen. Arrautza txiki laranja bat izan nintzen, arrain jaioberria bihurtu baino lehen. Udazkenean amak legar-habia egin zuen eta bertan bostehun arrautza baino gehiago utzi zituen. Gero halako beste habia gehiago egitera joan zen. Jaio eta urte batean izokin gaztea bilakatu nintzen. Ibaian bizi izan naiz denbora guzti honetan. Baina orain itsasora joateko garaia da. Bertan indartsuagoa eta azkarragoa izaten ikasiko dut. Horrela, heldua bihurtuko naiz. Orduan nire ibaiara bueltatzeko bidaia egingo dut, non ni neu izango naiz habiak eraiki eta arrautzak jarriko dituen.

ELIKADURA, ITXURA ETA GAITASUNAK

Arrainkumea nintzean uretako intsektuez, moluskuez eta krustazeez elikatzen nintzen batez ere. Heldua izaterakoan, itsasoko txipiroiez, ganbez eta arrainez elikatuko naiz. Eta hainbeste krustazeo jateagatik nire barne-haragia laranja-arrosa da. Nire azala berriz, grisa da, ezkataz estalita. Gorputz luzea, mutur zorrotza eta aho zabala dut. Igelari trebea naiz. Ibaiak beheara eta gora zeharkatzen ditut. Hortarako salto handiak ematen ditut, ibaiako arrokkak, maldak eta ur-jauziak gainditzeko.



Ipar Atlantikoa



GURE BIZI-EREMUA

Ur garbiak, hotzak eta oxigeno askorekin ditut gustoko. Nire familia Ipar Atlantikoan bizi da, Norvegiatik Kanadaraino zabaldutak gaude. Hala ere, ahaide ugari ditut mundu osoan. Horietako bat da Euskal Herrian bizi den Amuarraina.


Beno ba, ibaian beheara banoa itsaso bila. Hurrengo urtean izango naiz ibaian bueltan. Agur!

AZKEN GALDERAK

Bazenekien izokin asko jaio ziren ibai berdinerantz itzultzen direla? Baina, behin itsaso zabalean, nola dakite beren ibaia non dagoen bertara bueltatzeko?


Hurrengora arte, agur.





ANIMALIAK EZAGUTZEN ITSAS ANIMALIAK

GALDERAK



Konta Kontari



ANIMALIAK EZAGUTZEN

ITSAS ZALDIA



A) ZER NOLAKO ANIMALIA NAIZ?

- 1.UGAZTUNA
- 2.ARRAINA
- 3.MOLUSKUA
- 4.KRUSTAZEOA

B) NOLA EGITEN DUT IGERI?

- 1.NIRE ISATSA ERABILIZ
- 2.AIREZ BETERIKO POLTSATXOA ERABILIZ
- 3.BIZKARREKO HEGATS TXIKIAK ERABILIZ
- 4.EZ DUT IGERI EGITEN

C) ZEIN DA NIRE ESTRATEGIA INGURUNEAREKIN KLAMUFLATZEKO?

- 1.HAREAZ ESTALTZEN NAIZ
- 2.ARROKETAKO ZULOETAN SARTZEN NAIZ
- 3.BESTE ANIMALIA BATEN BIZKARREAN EZKUTATZEN NAIZ
- 4.AZAL-HARIZPIAK GARATU DITUT ALGEN ARTEAN NAHASTEKO

D) ZEIN TAMAINATAKOAK IZATEN GARA?

1. 14 MILIMETRO ETA 29 ZENTIMETRO ARTEAN
2. 29 ZENTIMETRO ETA 54 ZENTIMETRO ARTEAN
3. 54 ZENTIMETRO ETA METRO BAT ARTEAN
4. METRO BAT ETA BI METRO ARTEAN

E) NON BIZI NAIZ?

- 1.UR EPELAK ETA BEROAK DITUT GUSTOKOAK
- 2.UR HOTZAK DITUT GUSTOKOAK
- 3.UR HOTZAK ZEIN BEROAK DITUT GUSTOKOAK
- 4.LEHORREAN

F) ZENBAT KUME IZATEN DITUGU BIZITZAN ZEHAR?

1. BAT EDO BI
2. HIRU ETA HAMAR ARTEAN
3. HAMAR ETA EHUN ARTEAN
4. EHUN ETA MILA ARTEAN

ANIMALIAK EZAGUTZEN

ITSAS IZARRA



A) ZENBAT BESO IZAN DITZAKEGU?

1. DENEK DITUGU BOST BESO
2. BATZUEK BOST BESO BAINO GUTXIAGO IZAN DITZAKEGU
3. BOST ETA BERROGEI BESO ARTEAN IZAN DITZAKEGU
4. BERROGEITA HAMAR BESO BAINO GEHIAGO IZAN DITZAKEGU

B) ZER EZ DUGU?

1. AHORIK
2. BESORIK
3. SUDURRIK
4. BENTOSARIK

C) ZEIN KOLORETA KOAK IZAN GAITEZKE?

1. BELTZAK
2. KOLORE ARGIKOAK
3. KOLORE ITZALITAKOAK
4. KOLORE ARGIKOAK ZEIN ITZALITAKOAK

D) ZENBAT URTE BIZI IZATEN GARA?

1. URTEBETE BAINO GUTXIAGO
2. URTEBETE ETA BI URTE ARTEAN
3. BOST URTE INGURU
4. HAMAR URTE BAINO GEHIAGO

E) NON AURKITUKO GAITUZU?

1. ITSASOETAN BAKARRIK
2. LAKUETAN ETA IBAIETAN BAKARRIK
3. IBAIETAN, LAKUETAN ETA ITSASOETAN
4. LEHORREAN

F) ZER GERTATZEN DA ITSASOTIK ATERATZEN BANAUZU?

1. NIRE BENTOSAK HONDATZEN DIRELA
2. EZIN DUDALA ARNASA HARTU
3. ZIZTATUKO ZAITUT
4. BESO BAT GALTZEN DUDALA

ANIMALIAK EZAGUTZEN

IZURDEA



A) ZER NOLAKO ANIMALIA NAIZ?

- 1.UGAZTUNA
- 2.ARRAINA
- 3.MOLUSKUA
- 4.KRUSTAZEOA

B) ESALDI HAUETATIK, ZEIN DA GEZURRA?

- 1.AMAREN SABELEAN HAZI NINTZEN JAIO AURRETIK
- 2.GUTAKO BATZUEK UR HOTZAK NAHIAGO DITUGU
- 3.BADITUT SENIDEAK IBAIETAN BIZI DIRENAK
- 4.ARRAUTZA BATETIK JAIO NINTZEN

C) NOLA EGITEN DUT ARNAS?

- 1.SUDURRETIK AIREA HARTUZ
- 2.BURUAN DUDAN ZULO BATETIK
- 3.AHOTIK EGITEN DUT ARNAS
- 4.BRANKIAK ERABILTZEN DITUT

D) ZERTAZ ELIKATZEN NAIZ?

1. KRUSTAZEOAK ETA TXIPIROIAK JATEN DITUT
2. ALGAK ETA PLANKTONA JATEN DITUT
3. ALGAK ETA ARRAINAK JATEN DITUT
4. ARRAINAK ETA TXIPIROIAK JATEN DITUT

E) ZERTAZ BALIAZTEN NAIZ BESTE ANIMALIAK UR AZPIAN AURKITZEKO?

- 1.NIRE IKUSMEN ONAZ
- 2.NIRE USAIMEN GARATUAZ
- 3.NIRE KAMUFLATZEKO GAITASUNAZ
- 4.NIRE KARRASKAZ ETA TXITUAZ

F) ESALDI HAUTETIK, ZEIN DA GEZURRA?

- 1.ABIADURA AZKARRA HARTU DEZAKET
- 2.HORTZ ZORROTZAK DITUT
- 3.NIRE AZALA LAKARRA DA
- 4.INGURUNE TROPIKALAK GUSTATZEN ZAIZKIT

ANIMALIAK EZAGUTZEN

MARMOKA



A) ZER NOLAKO ERALDAKETA BURUTU NUEN?

1. ARRAUTZA, MARMOKA, LARBA
2. LARBA, ARRAUTZA, MARMOKA
3. MARMOKA, LARBA, ARRAUTZA
4. ARRAUTZA, LARBA, MARMOKA

B) ZEIN DA GEZURRA? NIRE GORPUTZA...

1. UREZ DAGO OSATUTA GEHIEN BAT
2. MUGITZEN EZ DIREN GARROAK DITU
3. BIGUINA DA
4. DISTIRA EGIN DEZAKE

C) NON BIZI GARA?

1. BAKARRIK ITSASOAN AURKITUKO GAITUZU
2. UR HOTZAK EZ DITUGU GUSTOKOAK
3. ITSOSOKO UR GEHIENETAN, BAITA UR GEZATAN ERE
4. UR SAKONETAN EZIN GARA BIZI

D) NOLA MUGITZEN NAIZ URPEAN?

1. GARROAK MUGITUZ IGERI EGITEN
2. BURUA ASTINDUZ GORA-BEHERA NOA
3. GORPTZ-HUTSUNeko URA AZKAR ASKATUZ
4. HEGATSEI ESKER

E) ZER JATEN DUT?


1. PLANKTONA ETA ARRAIN ARRAUTZAK
2. ARRAIN ARRAUTZAK ETA ALGAK
3. ALGAK ETA KRUSTAZEO TXIKIAK
4. KRUSTAZEO TXIKIAK ETA PLANKTONA

F) ESALDI HAUTETAIK, ZEIN DA EGIA?

1. DENAK GARA POZOINTSUAK ETA OSO ARRISKUTSUAK
2. DENAK GARA POZOINTSUAK, BAINA BAKARRIK BATZUK ARRISKUTSUAK
3. BAKARRIK GUTAKO BATZUK POZOINTSUAK GARA
4. GUTAKO BAT ERE EZ DA ARRISKUTSUA

ANIMALIAK EZAGUTZEN

IZOKINA



A) ZER NOLAKO ANIMALIA NAIZ?

- 1.UGAZTUNA
- 2.ARRAINA
- 3.MOLUSKUA
- 4.KRUSTAZEOA

B) NON JAIO NINTZEN?

- 1.NORVEGIAKO IBAI BATEAN
- 2.IPAR ATLANTIKOKO OZEANOAN
- 3.HEGO ATLANTIKOKO OZEANOAN
- 4.EUSKAL HERRIKO IBAI BATEAN

C) ZENBAT ARRAUTZA UTZ DITZAKE AMAK HABIA BAKOITZEAN?

- 1.HAMAR BAT GUTXI GORA BERA
- 2.EHUN ETA BERREHUN ARTEAN
- 3.BOSTEHUN INGURU
- 4.MILA BAINO GEHIAGO

D) ZEIN DA GEZURRA? NIRE GORPUTZA...


- 1.ARROSA-LARANJA KOLOREKOA DA BARRUTIK.
- 2.EZKATAZ DAGO ESTALITA.
- 3.LUZE DA.
- 4.AHOA ESTUA DU.

E) JAIOBERRIA NINTZENEAN ZER JATEN NUEN?

- 1.TXIPIROIAK ETA UR-INTSEKTUAK
- 2.UR-INTSEKTUAK ETA KRUSTAZEOAK
- 3.KRUSTAZEOAK ETA ARRAINAK
- 4.ARRAINAK ETA TXIPIROIAK

F) BOROBILDU EGIA DIREN ESALDI GUZTIAK...

- 1.GUTAKO ASKO JAIO GAREN IBAI BERDINERA BUELTATZEN GARA.
- 2.UR HOTZAK ETA OXIGENO GUTXIREKIN DITUT GUSTOKO.
- 3.AMUARRAINA NIRE URRUNEKO SENIDEA DA.
- 4.ITSASORA NOA ARRANTZAN IKASTERA.



ANIMALIAK EZAGUTZEN ITSAS ANIMALIAK



ERANTZUNAK

ITSAS ZALDIA

A) 2 B) 3 C) 4 D) 1 E) 1 F) 4

ITSAS IZARRA

A) 3 B) 3 C) 4 D) 4 E) 1 F) 2

IZURDEA

A) 1 B) 4 C) 2 D) 4 E) 4 F) 3


MARMOKA

A) 4 B) 2 C) 3 D) 3 E) 1 F) 2

IZOKINA


A) 2 B) 1 C) 3 D) 4 E) 2 F) 1, 3

Konta Kontari



ANIMALIAK EZAGUTZEN ITSAS ANIMALIAK

ESTEKAK



ITSAS ZALDIA

<https://youtu.be/ofjXi3H8dKM>

ITSAS IZARRA

https://youtu.be/ah7mCRg_QIU



IZURDEA

<https://youtu.be/ajq2wBGKP04>

MARMOKA

<https://youtu.be/AbjEtpVX77c>



IZOKINA

https://youtu.be/2FD3l_gjVkw

ITSAS ANIMALIEN BILDUMA

<https://youtu.be/nit5-E3fbHw>



Konta Kontari